



**ZUZENBIDE ZIBILA**  
**IRUDI ETA INTIMITATE ESKUBIDEAK**  
Martina Klein kasua

1

**Auzitegi Gorenaren Epaia 2010.05.24 (RJ 2010, 3715)**

**Eskuratu eta irakurri**

**Pertsonak eta harremanak**



**Egitateak**

- < **2003** Martina Klein, lanbidez, modelo famatua da eta, gainera, telebistako aurkezlea eta humoregile ezaguna eta ospetsua.
- < **2003** Álex de la Nuez, lanbidez, musikagile eta konpositore ezaguna da, entzute handia izandako hainbat musika-taldetan ibilia.
- 2003** Bikotea, oso aparte dagoen hondartza batean dago, mutila biluzik eta neska toplessean. Paparazzi batek, urrutitik eta baimenik gabe, argazkiak ateratzen dizkie. Argazkigileak Grupo Zetari saltzen dizkio argazkiak.
- uztaila** Argazkiak enpresa-taldeko aldizkarietan argitaratzen dira. Gero, neskaren argazkiak interneten zabaltzen dira, besteak beste pornografiako web orrietan.

**Arazo juridikoa**

Pertsona famatua izateak, haren zenbait eskubide txit pertsonal ñabartzea ekartzen du. Lanbidea jendaurrean egiten duenez eta jendearengana iristeko asmoz gainera, bere irudi-eskubidea eta intimitate-eskubidea pertsona arrunt batek baino modu lausoagoan baliarazten ditu. Horregatik, zehaztu behar da zein inguruabarretan pertsona horrek bere eskubide horiek baliarazi ditzakeen.



## Oinarri juridikoa

### Hondartza

Izaeraz leku publikoa da (EKko 132.2 art.) eta, beraz, bertara joateko mugarik ez dago. Orain, erabilerari begira, hondartza guztiak ez dira berdinak: hiriko hondartza, aparte dagoen hondartza, senaia (kala), biluzik ibiltzeko xedez izendatutakoa. Erabilpenari buruzko erregimen desberdina izan dezakete: ordenantza bidez edo ohituraz.

### Argazkiak ateratzea

Leku publikoetan irudiak hartu daitezke, baina besteren eskubideak errespetatuz: pertsonaren eskubide txit pertsonalak (Ohore, Intimitate eta Irudiaren babeserako Lege Organikoa) eta besteren jabetza intelektuala (Jabetza Intelektualari buruzko Legea). Beste edonork bezala, lanbidez paparazzi den pertsonak ere muga horiek errespetatu behar ditu.

### Argazkiak saltzea

Argazkiz hartutako irudiak, argazkigilearenak dira (Jabetza Intelektualari buruzko Legeko 128. art.). Baina horien gaineko jabetza intelektuala aitortzeko, modu zilegian hartua izatea eskatzen du legeak; legea urratuz hartzen diren argazkien gaineko eskubiderik ez da aitortzen (esaterako, muturreko adibide batean, pedofiliaz egindako argazkiak). Horrekin bat, merkataritzan egon daitezkeen objektuak ere zilegiak izatea eskatzen da (KZeko 1271.3 art.). Beraz, argazkiaren gaineko jabetza-eskubidea legeak aitortzen du eta, ondorioz, salerosketa-kontratuaren objektu izan daiteke, baina beti ere modu zilegian (legearen eta gizarteko moralaren arabera) ateratakoa bada.

### Argazkiak argitaratzea

Argazkiak zilegiak badira, horiek ustiatzeko eskubideak dituenak (jabeak edo, lagatu zaizkiolako, hirugarren batek) argitara ditzake. Legean xedaturikoari dagokionez, hau da obra bat **zabaltzea**: hura zeinahi formatan adieraztea, publikoak egilearen adostasunez hartara lehen aldiz irispidea izateko moduan; eta hau, berriz, **argitaratzea**: publikoaren beharrak (obraren izaera eta helburuen arabera balioetsiak) modu arrazoizkoan aseko dituen ale kopuru bat haren eskura jarritz obra zabaltzea (Jabetza Intelektualari buruzko Legeko 4. art.).



## Babestutako interesak

**Irudi- eta intimitate-eskubideak** EKko 18. artikulua eskubide hauek aitortzen ditu: Bermatzen da ohorerako eskubidea, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea eta norberaren irudirako eskubidea. Oinarritzko eskubidea izanik, Lege Organikoz arautzen da: 1/1982 LO. Pertsona bakoitzaren interes partikularra babesten da.

**Informatzeko eskubidea** EKko 20. artikulua eskubide hau aitortzen du: edozein hedabidetatik informazio egiazkoa libreki komunikatzea edo jasotzea. Egiazkotasuna defendatzeko, zuzentzeko eskubidea aitortzen da Lege Organikoz: 2/1984 LO. Gizartearen informazio-interesa babesten da: informatzeko interesa (komunikabideena) eta informatua egoteko interesa (partikular guztiena). Eremu honetan, kontuan izan hedabidearen informatzeko interesa ez dela nahastu behar bere interes ekonomikoarekin: argi dago enpresa orok interes ekonomikoa baduela eta helburu horrekin jardun dela. Orain, enpresaren interes ekonomikoa (diru-interes hutsa) ez da babestua dagoen funtsezko eskubidea.

## Eraentza juridikoa

**Intimitatearen eta irudiaren babesa** *Uno. La protección civil del honor, de la intimidad y de la propia imagen quedará delimitada por las leyes y por los usos sociales atendiendo al ámbito que, por sus propios actos, mantenga cada persona reservado para sí misma o su familia. Dos. No se apreciará la existencia de intromisión ilegítima en el ámbito protegido cuando estuviere expresamente autorizada por ley o cuando el titular del derecho hubiese otorgado al efecto su **consentimiento expreso**. Tres. El consentimiento a que se refiere el párrafo anterior será revocable en cualquier momento, pero habrán de indemnizarse en su caso, los daños y perjuicios causados, incluyendo en ellos las expectativas justificadas* (Legeko 2. art.).

**Zilegiak ez diren portaerak** *Tendrán la consideración de intromisiones ilegítimas en el ámbito de protección delimitado por el artículo segundo de esta Ley: (...) Cinco. La captación, reproducción o publicación por fotografía, filme, o cualquier otro procedimiento, de la imagen de una persona en **lugares o momentos de su vida privada o fuera de ellos**, salvo los casos previstos en el artículo octavo, dos* (Legeko 7. art.).

**Salbuespen orokorra** *Uno. No se reputará, con carácter general, intromisiones ilegítimas las actuaciones autorizadas o acordadas por la Autoridad competente de acuerdo con la ley, ni cuando predomine un **interés histórico, científico o cultural relevante*** (Legeko 8.1 art.). Kasua salbuespen orokor horretan ez da sartzen, hurrengo salbuespen bereziak arautzen baitu; baina erabiltzen duen irizpidea (interes nabaria) baliagarria izan daiteke interpretaziorako.



**Salbuespen berezia** Eraentza berezia ezartzen da lanbidearen arabera: *En particular, el derecho a la propia imagen no impedirá: a) Su captación, reproducción o publicación por cualquier medio cuando se trate de personas que ejerzan un cargo público o una **profesión de notoriedad o proyección pública** y la imagen se capte durante un acto público o en lugares abiertos al público* (Legeko 8.2 art.). Irudi-eskubidea zer den Auzitegi Konstituzionalak zehaztu du hainbat epaietan (AKEE 81/2001, 72/2007 eta 158/2009).

**Babes-erabakiak eta kaltea** *Dos. La tutela judicial comprenderá la adopción de todas las medidas necesarias para poner fin a la intromisión ilegítima de que se trate y restablecer al perjudicado en el pleno disfrute de sus derechos, así como para **prevenir o impedir** intromisiones ulteriores. Entre dichas medidas podrán incluirse las cautelares encaminadas al **cese** inmediato de la intromisión ilegítima, así como el reconocimiento del derecho a replicar, la **difusión de la sentencia** y la condena a **indemnizar** los perjuicios causados. Tres. La existencia de perjuicio se presumirá siempre que se acredite la intromisión ilegítima. La indemnización se extenderá al daño moral que se valorará atendiendo a las circunstancias del caso y a la gravedad de la lesión efectivamente producida, para lo que se tendrá en cuenta en su caso, la difusión o audiencia del medio a través del que se haya producido. También se valorará el beneficio que haya obtenido el causante de la lesión como consecuencia de la misma* (Legeko 9. art.). Arau horren aplikazioa aztertzeko, alderatu daitezke haren edukia, bikoteak eskatu duena demandan (*petitum*) eta epaileek erabaki dutena. Kasuan, eztabaida juridiko berezirik ez dago horren inguruan.

## Zalantza

Pertsona famatuentzat ezarritako salbuespena ulertzeko moduan dago tirabira. Hasteko, zalantzan ez da jartzen pertsona horiek badutela, duten lanbidearen arabera, proiektzio publikoa. Bigarrenik, argi dago jendearentzat irekia den lekuan (hondartzan) hartu dela irudia, baina arauaren esapide hori (*lugares abiertos al público*) hitzez-hitz ulertu behar da (*interpretación literal*); edo, jokoan dauden interesak kontuan hartuta, horiek babesteko dauden gainerako arauekin eta horien helburuekin argitu behar da (*interpretación finalista*).

**Pertsonaren lanbidea eta osparen zama** Famatua izateak, lanbidearen arabera gehienetan, eguneroko zama ekartzen dio pertsonari: jendea dabilen lekuetan begiratu izatea eta portaera zainduagoa eraman behar izatea. Lanbide-motak interesa sortzen badu jendearentzat, jarduera horrekin lotutako portaerei buruzko berriek badute interesa jendearentzat. Baina, pertsona horiek intimitate-eskubidea badute, eta jendeak pertsona famatuaren gorabehera guztiak jakin nahi izateak ez du murrizten eskubide hura.

**Adostasunik eza** Argi dago irudiak hartzeko baimenik ez dela eman esanbidez. Pertsona famatuen kasuan, legearen irizpideak jarraituz, baimenik ez da behar irudiak hartzeko eta zabaltzeko leku publikoan egina bada. Dena den, isilbidez adierazi daiteke, jarraitutako



portaeraren arabera, irudiak hartzeko baimenik ez dela eman nahi. Egitate hori eman den edo ez epailearen usteak erabakiko du.

**Leku publikoa** Lekua izaeraz publikoa izan arren (esanahi administratiboan), lekuaren xedea ere kontuan hartu behar da: toki gordea eta ezkutukoa bada, pertsona famatua hara joaten da hain zuzen ere intimitatearen bila, bere jarduera arruntak eta eguneroko bizimoduak jasanarazten dion zama arintzeko balio dion tokira. Pertsona famatuak, ezein pertsonak bezala, intimitate-eskubidea izan behar du hainbat leku publikoetan ere; noski, ez gertuko edo erabilera handiko hondartza batean, baina bai bere famak protagonismo-zantzurik ere emango ez dion toki batean. Azken batean, toki publikoetan ere aztertu behar da ea bertan egiten den jarduera izaeraz pribatua den edo jendaurrekoa den, eta, portaeraren arabera, eremu pribatuan geratzeko jardueratzat jo behar den edo ez.

**Interesik eza** Informatzeko interesa babesteak auresupostu bat eskatzen du: intereseko informazioa izatea (gizarteko usadioen eta komunikabide-motaren arabera). Egitate hutsa (bi pertsona hondartzan egotea) ez da berez informazioa, interesik ez baitu. Horrela, bere intimitate-eskubidea babestu nahi duen pertsona famatuaren egoera eta pertsona arrunt batena parekatu egiten dira, eta trataera berdina eman behar zaie: batzuen zein besteen portaerak informazio-interesik ez du. Beraz, informatzeko interesik ez dagoenez, informatzeko eskubiderik ez da urratzen.

## Jurisprudentzia

Epaia bat dator aurrez emandako beste batzuekin: AGEE 1988/03/29 (RJ 2480) eta 2004/07/01 (RJ 4843).

Desberdina da kasu hau: AGE 2011/02/25 (RJ 2484, Melanie Olivares kasua).